

AITA



VILLASANTE



# C1

# Sarrera-proba

Idazmena eta mintzamena

Izen-abizenak:

Telefona eta helbide elektronikoa:

Matrikula-zenbakia:

# Idazmena

## VILLASANTE

Aukeratu proposatutako **gaietako bat**.

Idatzi **250-300 berba** bitarteko testua. **Ez erabili letra handiegia**.

### 1. gaia: Atzerrira lan bila

**Egoera:**

*Gaztea zara, ikasketak amaitu berri dituzu, eta lan bila zabilta. Euskal Herriko lan-egoera ikusirik, zalantzan zaude atzerrira joan ala ez, eta, zalantzak argitze aldera, informazioa eskatzea erabaki duzu.*

**Eginkizuna:**

Idatzi gutuna Londresen bizi diren senideei, xede izanik Euskal Herrian gazteok duzuen lan-egoera azaltzea, atzerrira joateak eragiten dizkizun zalantzen berri ematea, eta hango lan-egoeraz informazioa eta aholkuak eskatzea.

**Lagungarriak:**

- Lana, hizkuntzak, curriculum, bizipen pertsonalak...
- Zenbait eskubide galtzeko arriskua: langabezia-saria, osasun-txartela...
- Jubilatzeke orduan, atzerrian lan egindako urteak hemen kotizatu bezala kontuan hartuko diren ez jakitea...
- Urteak joan ahala, itzultzeko aukera zailago izatea...
- Ondorio sozial eta afektiboak: familiarekiko harremana, lagunak...



### 2. gaia: Transexualitatea auzitan

**Egoera:**

*Joan den urtarrilean Chrysallis elkarteak –adingabe transexualen gurasoen bilguneak– gizarteari haur transexualen errealitatea ezagutzera emateko kanpaina abiarazi zuen. Handik aste batzuetara Hazte Oir taldeak kontrako mezua zeramaten hainbat autobus atera zituen Estatu osoko errepideetara. Adingabe transexualen duintasunaren aurkako mezua zabaltzen zutelakoan, udal-agintariek eragotzi egin zieten ibilgailuei zure herrian sartzea.*

**Eginkizuna:**

Idatzi artikulua herriko aldizkarirako. Bertan, adierazi zer iritzi duzun zabaldutako mezuez eta abiarazitako ekimenez, baita zure herriko udalak hartutako erabakiaz ere.

**Lagungarriak:**

- Iritzi-askatasuna ala transfobia?
- Identitatearen eta gorputzaren arteko gatazka.
- Zailtasunak: eskola-jazarpena, ingurukoan gaitzespena, izena, janzkera...
- Guraso eta irakasleen jokabidea nortasunaren eraikuntzan.
- Gizartean zabaldu beharreko mezua.

Chrysallis

**BADIRA ZAKILA DUTEN NESKAK ETA BULBA DUTEN MUTILAK**  
*Horrelaxe da!*

HOBIETAKO GISEHENEK SUPRITU EGITEN DUTE. GIZARTEAK ERREALITATEI HONEN BERRI EZ DOKLARO HITZ EGIN BEHARRA DAUKAGU

**Los niños tienen pene. Las niñas tienen vulva. Que no te engañen.**  
*Si naces hombre, eres hombre. Si eres mujer, seguirás siéndolo.*

Hazte Oir



AITA



Herri Erakundea

VILLASANTE



Lined writing area consisting of horizontal lines for text input.

**AITA**



**VILLASANTE**



## Mintzamena

Egin zeure buruaren aurkezpena 5 minutu inguruan.

Horretarako, erabili puntu hauetako batzuk:

- Izen-abizenak. Zergatik duzu izen hori?
- Ikasketak (oinarrizko hezkuntza, DBH, unibertsitatea...).
- Euskara zure bizitzan (familiar, lagunartean, Interneten, Whatsappetan...).
- Baduzu tituluren bat? Noiz eta non aterata?
- Zergatik zatoz euskaltegira?
- Zure familia (gurasoak, euren lanbideak, aitaita-amamak...)
- Zure bizitzan gertatutako pasadizo barregarriren bat.
- Zure bizitzan gertatutako pasadizo tristeren bat.

Grabatu egingo dugu testua.